



Musika Eskola trikitixa ikasleak ostiralean emango duten kontzerturako entsaiatzen.

Santa Zezilia inguruko kontzertuak bihar hasi eta igandera bitartean

■ Musika Eskolak, Musika eta Txistulari Bandek, Kantuz Abesbatzak, M^o Eugenia Silguerok eta Sergio Martinezek dituzte kontzertuak ■ Luis eta Jose Ramon Berrondo omenduko dituzte ostiralean Udaletxean.

URRIAREN 22an da Santa Zezilia, musikarien eguna, eta Hernanin ere egun horren inguruan kontzertuak izango dira. Ostegunetik igandera bitartean egunero izango dira emanaldiak eta eszenarioan izango dira Musika Eskolako ikasleak, Hernaniko Banda, Kantuz Abesbatza, Hernaniko Txistulari Banda, M^oEugenia Silguero biolontxelo jolea eta Sergio Martinez pianista.

Kontzertuetaz gain urtero urtero omenaldia egiten zaie Hernaniko Musika Bandan 25 edo 50 urte egin dituztenei. Aurten Luis Berrondo zena eta Jose Ramon Berrondo omenduko dituzte, bi anaiak duela 25 urte hasi baitziren Bandan. Omenaldia ostiralean 20:00tan izango da, Udaletxean.

Artista harrigarriak bihar
Bihar osteguna, M^oEugenia Silguero biolontxelo jolea eta

Sergio Martinez pianojoleak kontzertua eskainiko dute arratsaldeko 18:00tan Sandiusterrin. M^o Eugenia biolontxelo jole irundarra da eta 3 urte zituela hasi zituen musika ikasketak eta 13 urte zituenerako biolontxelo maila gorengo ikasketak bukatu zituen Donostian. Sergio Martinez pianojolea irundarra da baita ere eta piano ikasketak jaio zen herrian hasi bazituen ere Frantzian, eta Belgikan jarraitu du piano ikasketekin.

Musika eskolako ikasleen emanaldia etzi

Ostiralean arratsaldeko 18:00etan Sandiusterrin Musika Eskolako ikasleen emanaldia izango da. Musika Eskolan ikasten diren instrumentuak entzun ahal izango dira 22 emanalditan eta taldeka: gitarra, saxoa, triki-

EGITARUA

Azaroak 20, osteguna
M^o Eugenia Silguero eta Sergio Martinezek eskutik txelo eta piano kontzertua. Sandiusterrin, 19:30tan.

Azaroak 21, ostirala
Musika Eskolako ikasleen kontzertua eta diplomen banaketa. Sandiusterrin, 18:00etan.

Luis Berrondo zena eta Jose Ramon Berrondori omenaldia. Aurten 25 urte dira Hernaniko Musika Bandan hasi zirela. Udaletxean, 20:00etan.

Azaroak 22, larunbata
Hernaniko Txistulari Banda eta Kantuz Abesbatzaren kontzertua. Sandiusterrin, 19:00etan.

Azaroak 23, igandea
Musika Bandaren kontzertua. Udaletxeko arkupetan, 13:00tan.



tixa, akordeoia, abesbatza, eta beste hainbat. Emanaldian diplomak banatuko

zaizkie Musika Eskolako 2garren eta 3garren maila gainditu duten ikasleei. □

Kaxko auzo elkarteak bilera du gaur

KAXKO auzo elkarteak bilera deitu du gaurko. Bi gai nagusiren bueltan hitz egingo dute: udalarekin izandako bilerek eman dutena eta Gudarien plaza eguneroko bizitzarako eta San Joanetarako berreskuratzeko asmoa. Bilera gaur da arratsaldeko 20:00etan, elkarreko lokal berrian, Aristizabal kalean. □

3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur

KONTZENTRAZIOA deitu du gaurko hirulaurden plataformak, kondenaen hiru laurdenak bete dituzten preso hernaniarren askatasuna eskatzeko. Kontzentrazioa arratsaldeko 19:00etan da Plaza Berrian. □

■ WATERPOLOA

Hernani A-k egurra eman eta Hernani B-k gozatu baina galdu

HERNANI Ak egur izugarria eman zion Izarraitz taldeari Azpeitian, 2-30. Azpeitiako taldea gaztea da eta ezin izan zuten lehen mailara igotzeko kandidato diren hernaniarren kontra. Bigarren taldeak berriz burruka gogotik egin zuen Iruñaren kontra, baina, 6-9 galdu zuen. Hernaniarrak ez ziren jokoan Nafarrak baina gutxiago izan, baina, nafarrek aukerak hobeto aprobetxatu zituzten. □

■ BOLEIBOLA

Hernanik ezin Torrelavegaren kontra

Hernaniko emakumezkoen taldea partidurik irabazi ezinda dabil lehen maila autonomikoan. Asteburuan 3-0 galdu du Torrelavegaren kontra. Jokoak: 25-18, 25-10 eta 35-12. □

BIKAIN AKADEMIA

abenduaren 1ean zabalduko dugu

- Talde txikiak
- Arreta pertsonala
- Ordutegi malgua
- Kurtso guztiak
- Lehen eta bigarren hezkuntza
- Batxillerra
- Unibertsitatea

Zure ikasketatan lagunduko dizugu

Kardaberaz, 56-58 beheka B
626 68 38 96 / 679 66 41 81

Peña

OKINDEGIA • JANARIDENDA

Zure eguneroko beharrei erantzuteko, hemen gaude.

Kale Nagusia 19
Tel.: 943 55 23 98
HERNANI

Etxeberri Taberna

Etxeberri 2.blokea - 943 551267

Egunero menuak, Asteburuan: Bazkariak eta afariak.


HERNANI TABERNA

Tilosekako taberna berria

- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hamburgesak
- Sandwichak

Terraza, telebista,...

HERNANI TABERNA - Ezkiaga pasealekua -
943 55 44 76 - HERNANI



La Cumbreko etxeak aurrean eta 'Zubiondo' industrialde berria barrenean.

'Zubiondo' izango da garai batean Remy-Harinera zegoeneko poligono berria

■ Gobernu Batzordeak onartu zuen atzo izen berria jartzea ■ Elizatxo 37, 38, 43, 44, 47 eta 48 zenbakietan urbanizazioa berritzeko lehiaketa deitza ere onartu zen.

FLORIDAKO industrialdeak Zubiondo izena izango du, atzoko Gobernu Batzordeak hala onartuta. Ibai ondo eta Floridako poligonoa elkartzen dituen zubi berria dela eta hartu du Zubiondo izena. Poligonoa oraindik egiten ari dira eta martxan dauden enpresak guzti dira. Guztira 5 hektarea ditu garai batean Remy-Harinera zegoeneko poligonoak eta hirutik bat pabiloiak izango dira eta gainerako urbanizazioko parte da.

Elizatzoko urbanizazioa

Elizatzoko auzoko 37, 38, 43, 44, 47 eta 48ko urbanizazioa berritzeko proiektua onartu zuen atzo Gobernu batzordeak. Lanak kontratatzeke deialdi publikoa deitza ere onartu zuten atzo eta behin lanak

adjudikatu eta obran hasi ondoren sei hilabete inguruan bukatuta egotea espero da.

Gainerako puntuetan Rufino sagardotegia haunditzeko baimena eman du Gobernu Batzordeak eta Agerre baserriko ikuilua haunditzeko baimena ere eman du. Berakorten hiru eguzki plaka jartzeko aukera izango dute eta Elkano kaleko etxebizitza bati lehen erabilera baimena ere eman dio Gobernu Batzordeak. UBIS enpresari industrial kalifikatua dagoen lursail bat egokitzeko baimena eman dio batzordeak eta bost enpresari dagozkien jardura baimenak Jaurlaritzako ingurumen sailera bideratu ditu. Bestalde Gomaytex zegoeneko pabiloian beste jardura bat martxan jartzeko eskaera atzera bota du Udalak, derri-

gorra baita PERIa ateratzea. PERIa behar dute jardura berria duten pabiloi guztiek eta lehenik Udalak onartu eta Diputazioak berretsi behar du. Beraz, Gomaytex izan zeneko pabiloian PERIa lortzea 6 bat hilabete kostako da orain dena reglan baldin badago. Bestalde, atzo Diputazioak PERI eskaera bat aztertu behar zuen Gureola enpresan. Enpresa bakarra egon da gaur arte eta 3 partzela egiteko eskaera da, Gureolaz gain 2 enpresa gehiago jartzeko.

Balantzako etxeak

Balantzako etxeak egiteko arau subsidiarioak aldatzea onartu zuen Udalak eta atzo Diputazioak eman behar zion oniritzia 25 etxebizitza egiteko egitasmoari. □

Hasi da Elur Txori elkarteko mus txapelketa

ELUR Txori elkartean mus txapelketa atzo hasi zen eta gaur eta bihar ere partidak izango dira. Gaur, asteazkena, bost partida jokatu dira: Xabier-Quijera/Pasiego-Javi; Rafa-Joxeba/Rekalde-Bilbao;


Txantillo-Gorka/Joxan-Gerardo; Peli-Ramon/Tomasena-Larrañaga; Martinez-Sanz/Arozamena-Lapazaran.

Bihar, osteguna jokatu dira: Burugain-Usabiaga/Txatxon-Julio; Valero-Bitxo/Mar-

tinez-Zubillaga; Karrera-Mitxelena/Txemari-Angel; Pavon-Loran/Polaina-Galan; Otegi-Gaztañaga/Polo-Alvarez; Ormazabal-Bilbao/Iñaki-Gorka; Diego-Antonio-/Armendariz-Olazar. □

HITZ BITAN

OKERRAK ZUZEN



Diapositiba lehiaketako sarituak. Mendizale Astean diapositiba lehiaketako sariak eman zituzten joan den ostiralean Biterin. Kronikan ateratako argazkia iazkoa zen eta hau da aurten go irabazleen argazkia. Pedro Vilches, Iñaki Baiona, Garbiñe Tijero, Maximo Moreno eta Mikel Otegi izan dira irabazleak.

MEDAILA MILAGROSA

Bilera bihar. Medaila Milagrosa elkarteak bilera du bihar arratsaldeko 16:30etan Inmakulada ikastetxean. Amabirjinaren omenezko hirurrena azaroaren 25, 26 eta 27an izango da, San Juan Bataiatzailearen parrokian, goizeko 6:45etan. □

**ZAZPIGARREN URTEURRENA
OLIVER URBIZU OSKOZ**

1996ko azaroaren 19an hil zen, istripuz, 8 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

-Goian bego-
Izar batek argitzen duenean
Zure irrifarra datorkigu menpera
Eta zure oroitzapena berriz
Irrifar egiten dugun bakoitzean.
Beti gure bihotzean.

Gurasoak: Jose Ramon eta Maria Jesus; anaia: Erik; aiton-amonak: Jose Maria eta Milagros; osaba-izebak: Angel eta Tere, Belen eta Joxe Manuel, Mikel, Andonitxu eta Andoni; lehengusuak: Inhar, Alex eta Peru.

Ereñotzun, 2003ko azaroaren 19an

ESKERTZA

**Eusebio Garin Auzmendi
"Pipo"**

Azaroaren 12an hil zen, 67 urterekin

Anai-arrebak, eta gainerako senideek eskerrak ematen dizkizuegu egun hauetan gurekin izan zareten guztioi, eta zuen laguntza eta babesa eman diguzuen denoi. Eskarrik asko.

Eusebioen familia

Hernanin 2003ko azaroaren 19an

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: **943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu)**

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrala, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33**

Pisua salgai zentroan: 3 habitazio, kalefazioa eta balkoi handia. **943 21 99 27**

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▶ Taxiak: 943 550093 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288 ▶ DYA: 943 464622 ▶ Autobusak: 943 556662 ▶ Anbulatorioa: 943 006666 ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103 	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941 ▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero *kronika* dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbieta), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak

Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

brintza

Brintza, S.L.

Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskalak
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Urbieta 15
Tel.: 943 331267
Faxa: 943 330892
20120 Hernani